# LAZKAO

| # 18 | 2019 AZAROA |

LAZKAOKO UDALA

## Hasiak dira Elosegi kalea eraberritzeko lanak

## Ya han comenzado las obras de urbanización de la calle Elosegi





2019-2023 LEGEALDI PLANA [ 2 ]



PAUSOKA EKIMENA BERRIZ MARTXAN [ 10 ]

# 2019-23 Legealdiko plana lantzen dihardu Udal Gobernuak

# El Ayuntamiento de Lazkao está elaborando el Plan de Legislatura 2019-23



Udal Gobernuak bukatzear du datozen lau urteei begirako Plangintza Estrategikoa. Kepa Zubiarrain alkateak nabarmendu duenez, Udal-gobernuak agintaldirako "ibilbide –orria" edo Agintaldiko Plan bat egiteko konpromezua hartu zuen Lazkaotarren aurrean, legealdian garatu nahi den estrategia eta haren oinarrian dauden proiektu edo jarduera ildoak zehazteko.

Azken asteotan, alkateak eta bere lan taldeak, Lazkaoko udal teknikari eta eragile ezberdinekin elkartu ondoren, hainbat proposamen jaso dituzte, Udal Gobernuaren proiektua osatu eta aberastuz.

"Herritarra dugu erdigune" azpimarratu dute: "Herri bizi bat nahi dugu, alaia eta solidarioa, zaindua eta aurreratua, guztiona eta guztiontzako. Hori lortzeko jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatuko dugu, azpiegiturak egokitu, kalitatezko zerbitzuak eskaini, udal baliabideak eraginkortasunez kudeatu, gizon eta emakumeen arteko egiazko berdintasuna lortzeko lan egin, euskaraz jardunez, ingurumena zainduz eta guztia herritarrekin bat lan eginez, bizikidetza oinarri".

Agintaldi Plana 4 helburu estrategiko, 15 ildo eta 58 ekintzetan antolatzen da. Herritarra du erdigune eta Garapen Iraunkorreko Helburuak -GIH- hartzen ditu erreferente gisa.

Alkateak adierazi du plana aurreratua dagoela eta azaroaren bigarren hamabostaldian publiko egiteko asmoa dutela. Plan hau oinarri harturik, osatuko dira 2020ko aurrekontuak. "Gure gestioaren bizkarhezurra izango da. Landua eta Lazkao eta lazkaotarren oraina zein etorkizunari erreparatzen diona".

> *4 helburu estrategiko, 15 ildo eta 58 ekintzetan antolatzen da. Herritarra du erdigune eta Garapen Iraunkorreko Helburuak -GIH- hartzen ditu erreferente gisa.*

## 4 HELBURU ESTRATEGIKOAK

### 01

Herri bizia, aukerak eta kalitatezko zerbitzuak eskaintzen dituen herria: udalerriko elkarte eta eragileekin elkarlana indartu; Lazkaoko jarduera ekonomikoa sustatu eta lagundu; kalitatezko zerbitzuak eskaini, herri garbia, erosoa eta atsegina bermatuz; azpiegitura sarea beharretara egokitu; eta landa eremuaren garapena bultzatu.

Un municipio vivo, que ofrece oportunidades y servicios de calidad: fortalecer el trabajo conjunto con las asociaciones y agentes de Lazkao; fomentar la actividad económica, ofrecer servicios de calidad, garantizando un pueblo limpio y agradable; adaptar la red de infraestructuras a las necesidades actuales; y fomentar el desarrollo del entorno rural.

### 02

Herri solidarioa, inor atzean utziko ez duen herria: herri osasuntsu eta aktibo baten alde lan eginten jarraitu; nagusien beharrei aurre egin; gazteen alde programak garatu; inklusio politikak landu; eta egiazko eta erreala den berdintasuna landu.Euskaraz bizi nahi duen herria: euskararen erabilera bultzatu; eta kultura, gaztedia eta hezkuntza alorreko ekintzetan euskaraz jardutea sustatu.

Un Lazkao solidario, que no deja a nadie atrás: seguir trabajando por un pueblo sano y activo; solventar las necesidades de los mayores; desarrollar programas juveniles; trabajar políticas de inclusión; y trabajar por una igualdad real y efectiva.



**Kepa Zubiarrain, alkatea:**

*«Plana oinarri landuko ditugu 2020ko aurrekontuak. Gure gestioaren bizkarhezurra izango da. Landua eta oraina zein etorkizunari erreparatzen diona».*

*Está compuesto por 4 objetivos, 15 estrategias, y 58 iniciativas y tiene como referente los Objetivos de Desarrollo Sostenible.*

**Kepa Zubiarrain, alcalde:**

*"Este plan será la columna vertebral de la gestión municipal y la base de los próximos presupuestos. Un plan muy trabajado que responde al presente y futuro de Lazkao y las y los lazkaotarras".*

El Gobierno Municipal está a punto de culminar el Plan Estratégico que servirá de hoja de ruta para los próximos 4 años. Tal y como ha señalado el alcalde Kepa Zubiarrain, el Gobierno adquirió con las y los lazkaotarras el compromiso de crear un Plan de Legislatura para establecer la estrategia y los proyectos e iniciativas a realizar hasta 2023.

Estas últimas semanas el alcalde y su equipo se han reunido con diferentes agentes y técnicos municipales y han recabado diversas propuestas con el fin de enriquecer el proyecto del Gobierno.

"Las y los lazkaotarras son el epicentro de nuestro proyecto" han explicado: "queremos un Lazkao vivo, alegre y solidario, cuidado y avanzado, de todas y todos y para todas y todos. Para ello fomentaremos la economía y el empleo de calidad, adaptaremos las infraestructuras a las necesidades actuales, impulsaremos servicios de calidad, gestionaremos los recursos públicos de manera eficiente, trabajaremos por conseguir la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres, fomentaremos el uso del euskara, cuidar el medioambiente, y todo trabajando conjuntamente con la ciudadanía, teniendo como base la convivencia".

El Plan de Legislatura está compuesto por 4 objetivos, 15 estrategias, y 58 iniciativas y tiene como referente los Objetivos de Desarrollo Sostenible.

El alcalde ha especificado que el Plan de Legislatura está muy avanzado y que lo presentarán en la segunda quincena de noviembre: "este plan será la columna vertebral de la gestión municipal y la base de los próximos presupuestos. Un plan muy trabajado que responde al presente y futuro de Lazkao y las y los lazkaotarras".

# 4 OBJETIVOS ESTRATÉGICOS

## 03

Euskaraz bizi nahi duen herria: euskararen erabilera bultzatu; eta kultura, gaztedia eta hezkuntza alorreko ekintzetan euskaraz jardutea sustatu, baina beti ere ikasteko aukerarik izan ez dutenei errespetu osoa gordez.

Lazkao euskadun: fomentaremos el uso del euskera y trabajaremos para que las actividades culturales, juveniles y deportivas se desarrollen en euskera, pero siempre desde el máximo respeto a aquellas personas que no lo hablan

## 04

Udal kudeaketa eraginkorra eta gardena: udalaren antolaketa eraginkorra;herritarrei legezko eta kalitatezko informazioa helarazi; eta alderdi politiko ezberdinen arteko harremana indartu.

Gestión eficiente y transparente: reestructurar la organización municipal para ganar en eficiencia; impulsar y crear nuevas vías de comunicación para hacer llegar a la ciudadanía la información; y fortalecer las relaciones entre los diferentes grupos políticos que forman en Consistorio.



# Hasiak dira Elosegi kalea eraberritzeko lanak

*Kalea bere osotasunean berrurbanizatuko da, galtzada zein saneamedu sarea, oinezkoentzako kale bilakatuz eta trafikoa bertako komertzioetako zamalanetara mugatuz.*

*Aurrekontua, BEZ barne, 277.013,17 eurokoa da. Lanek 3 hilabete irautea dago aurreikusia..*

Lazkaoko Udalak Elosegi kalea eraberrituko du. Lanak urriaren 2. hamabostaldian hasi ziren eta kalea bere osotasunean eraberrituko da, galtzada Udaletxeko plazarekin integratuz. Trafikoa karga eta deskargako une puntualetara mugatua geratuko da.

Aktuazio honekin oinezkoentzako eremu zabala lortuko da, eta oinarrian, Lazkaoko erdigunearen bizi kalitatea hobetuko duena. Lanek eremu osoa kaler bakar eran birsortzea ahalbidetuko dute, galtzadan maila aldaketarik gabea. Oinezko mugikortasunari ematen dio lehentasuna, kalea paseatu, jolas egin edota inguruko saltokietan erosketak burutzeko espazio eroso bilakatuz.

Galtzada osoa altxatuko da, gaur egungo espaloien pare utziaz eta harrizko adokinarekin zolatuko da. Gaur egungo espaloien zintarriak mantentzen dira.

Saneamendu sarea ere berrituko da, fekalak zein euri uren hoditerua. Kolektoreak berritzeko premia nabarmena dago eta gainera, egun, badira puntu zehatzak non euri urak fekalen sarera bideratzen direnak. Arazo guzti horiek konponduko dira sare separatiba berri bat sortuz, fekalen zein euri urentzako hodi bana ezarriz.

Lanaren lehen fasea garatuko da orain: oinezkoentzako eremua urbanizatuko da eta Udaletxeko plaza zabaltzeko lanak burutuko dira.

Aurrerago inprimakidun asfaltoa ezarriko da, Elosegi kaleko ibai alboko beste aldeari jarraipena emanaz.

Aurrekontua, BEZ barne, **277.013,17** eurokoa da. Lanek hiru hilabete irautea dago aurreikusia.



# Ya han comenzado las obras de urbanización de la calle Elosegi





*Se llevará a cabo la reurbanización total del vial, tanto la superficie como la red de saneamiento en su integridad, convirtiéndolo en una zona peatonal en la que únicamente se permitirá el acceso de los vehículos de carga y descarga puntual de los locales comerciales existentes en esta zona*

*Las obras permitirán transformar la calle en un espacio donde los viandantes puedan pasear, jugar, charlar y comprar en los comercios colindantes.*





El Ayuntamiento de Lazkao urbanizará la calle Elosegi. Los trabajos comenzaron a principio de noviembre y se elevará la cota del vial integrando la carretera con la plaza del Consistorio. El tráfico rodado quedará restringido a momentos puntuales o de carga y descarga.

Con ello se conseguirá un gran espacio peatonal, que mejore la calidad urbana del casco de Lazkao. Las obras permitirán rediseñar la calle como una plataforma única, sin cambios de nivel en la calzada. Este cambio prioriza la movilidad a pie, transformando la calle en un espacio donde los viandantes podemos pasear, jugar, charlar y comprar en los comercios colindantes.

Se elevará toda la calzada, quedando al ras de las aceras existentes hoy en día y se pavimentará con adoquín. Se mantiene el bordillo de la acera existente.

Se actuará sobre la red de saneamiento, tanto la de fecales como la de pluviales, ya que además de la necesidad de mejora de los colectores, hay puntos en los que se vierte agua de escorrentía a la red de fecales.

Por lo tanto, se proyecta una red separativa nueva, para lo cual se instalará tanto un conducto para la red de fecales como otro para la red de pluviales.

Ahora se ejecutará la primera fase de la obra: se desarrollará la urbanización de la zona peatonal, la correspondiente a la ampliación de la plaza del Ayuntamiento.

Más adelante se desarrollará la ejecución del asfalto impreso, dando continuidad al vial rodado que viene desde el otro lado del río de la calle Elosegi.

El presupuesto total asciende a **277.013,17** euros. Se prevé que las obras tengan una duración de tres meses.

# Parte-hartze zabala 'Udazkenean aisiaz gozatu Lazkaon' kanpainan

Lazkaoko Udalak, herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen biziberritze planari jarraiki, "Udazkenean aisiaz gozatu Lazkaon" kanpaina jarri zuen martxan urrian, hirugarrenez. Kanpaina honetan, herriko 38 merkatarik eta 22 ostalarik hartu dute parte eta herritarren erantzuna handia izan da oso.

Kanpainari irailaren 30ean eman zitzaion hasiera eta urriaren 28ra arte egon zen martxan. Ostalariek eta merkatariek txartelak banatu zituzten bezeroen artean, eta erosketa edo kontsumizio bakoitzagatik eranskailu bat eman. Behin txartela osatuta, udaletxean jarri zen kutxa batean sartu behar zuten txartela herritarrek, izen-abizenak eta kontakturako telefonoa zehaztuta. Kutxan jasotako txartelen artean lau zozketa egin ziren aisialdiarekin lotutako lau sari erakargarrirekin:

- Zinema denboraldirako hiru bono.
- Hiru e-book, irakurketaz gozatzeko.
- Kiroldegirako urte bateterako hiru bazkidetza.
- Hiru afari Lazkaoko jatetxe batean, pertsonentzako.

Azken urteetan Lazkaon martxan jarri diren mota honetako kanpainen bidez, Lazkaoko Udalak herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak bisibiliziatu eta balioan jartzea du helburu. Negozio hauek herriko ekonomiari eta lanpostu sorrerari egiten dioten ekarpena aintzakotzat hartzekoa da.

"Enplegua lazkaotarren ongizatea bermatzeko ezinbesteko elementua" nabarmendu du Kepa Zubiarrain alkateak, "eta gure eskumenaz baliatuz, industria, autonomo, komertzio eta ostalaritzari babesa emateko ahalegin guztia ari gara eta jarraituko dugu egiten. Argi dugu ez dagoela herri bizirik merkataritzarik gabe. Beraz, Lazkaok, behar zaituzte, eta bidelagun izango gaituzue".

> *Egitasmo honen helburu nagusia Lazkaoko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak ikusarazi eta balioan jartzea da.*



## Irabazleak / Ganadores



Eneko Agirre Uranga, Maria Pilar Perez Calvo eta Gregorio Aizpurua Urbiztondo izan ziren zinema denboraldiko hiru bonoen irabazleak.



Arantxa Zumelaga Agirre, Leoncio Mangas Lucas eta Itziar Arratibel Armendariz izan ziren irakurketaz gozatzeko hiru e-book-en irabazleak.

# Amplia participación en la campaña ‘Este otoño disfruta de tu tiempo libre en Lazkao’

*El objetivo de esta campaña ha sido visibilizar y poner en valor el sector del comercio, hostelería y servicios lazkaotarra.*



El ayuntamiento de Lazkao puso en marcha en octubre por tercer año consecutivo la campaña “Este otoño disfruta de tu tiempo libre en Lazkao”. En la misma, han participado 38 comerciantes y 22 hosteleros y la respuesta ciudadana ha sido reseñable.

La campaña arrancó el 30 de septiembre y se prolongó hasta el 28 de octubre. Durante este periodo los hosteleros y comerciantes repartieron las tarjetas entre sus clientes, y por cada consumición o compra, se una pegatina.

Una vez la tarjeta completada, había que depositarla en una urna en el Consistorio. Entre todas  se han sorteado 4 interesantes premios:

- Tres bonos para la temporada de cine.
- 3 ebooks.
- Tres bonos anuales para el polideportivo.
- Tres cenas en un restaurante de Lazkao para 4 personas.

Con las campañas que estos últimos años se han puesto en marcha en Lazkao, el Consistorio tiene como objetivo visibilizar y poner en valor el sector del comercio, hostelería y servicios del municipio.  Es de tener en cuenta la gran aportación económica que hacen el comercio y la hostelería a Lazkao, así como los puestos de empleo que derivan de éstos.

“El empleo es esencial para garantizar el bienestar de las y los lazkaotarras” ha señalado el alcalde Kepa Zubiarrain, “y por ello estamos y seguiremos apoyando y apostando por la industria, las y los autónomos, comercio y hostelería. Tenemos claro que para mantener un Lazkao vivo y dinámico el comercio y el sector servicios en su conjunto son esenciales. Por tanto, Lazkao os necesita”.



Maite Bautista Igarzabal, Angelita Alonso Nuñez eta Maddi Ramajo Sanz izan ziren hirugarren saria den kiroldegirako urte beterako 3 bazkidetza bonoen irabazleak.

Maite Bautista Igarzabal, Angelita Alonso Nuñez eta Maddi Ramajo Sanz izan ziren hirugarren saria den kiroldegirako urte beterako 3 bazkidetza bonoen irabazleak.

# Kanpandegi industriaguneko urbanizazio lanak 2020 hasieran hasiko dira

Kanpandegi industrialdeko urbanizazio lanak 2020 hasieran hasiko dira, eraikin industrialak eraiki ahal izatea ahalbidetzea izanik helburu. Aurrekontua, BEZ barne, 3.588.626,87 eurokoa da eta aurreikusten da urbanizazioak 14 hilabete irautea.



Gaur egun, Zubierreka ingurua batzen duen zubia egina dago jada eta baita etorkizuneko Kanpandegi industriagune honetara sarbidea emango duen biribilgunea ere. Azken honek Lazkao, Beasain eta Ataun lotzen dituen trafikoa antolatzen du, Lazkaoko bidegorriari jarraipena emateaz gainera.

Lazkaoko alkate den Kepa Zubiarrainek nabarmendu du Kanpandegi industriagunearen garapena Udal Gobernuaren ildo estrategiko nagusienetako baten pausu garrantzitsua dela: "gure lehentasuna da Lazkaoko garapen ekonomikoa sustatzea, enpresa berriak erakarri eta lanpostu kualifikatu berrien sorrera bultzatzea. Ekonomia indartsu batek bermatzen bait du bizi kalitatea eta ongizatea"".

Kanpandegiko proiektua ingurunearen ezaugarriak kontuan hartuta gauzatu da: maldari egokituz eta lur mugimendu handiak ekidinez. Horrexegatik, eraikuntza bi zerrendetan garatuko da, bi maila ezberdinetan eraikiaz, eta altura ezberdinetan dauden bi sarbiderekin. Beherago dagoen mailako hustutze lanak lur osagarriarekin konpentsatuko dira, gorago dagoen kaleak behar duen maila lor dezan. Honela, errepidearen alboan dauden bi etxebizitzetatik, Zubigoenaberri eta Belenetxe, bereizten da inguru industriala.

Proiektatuak dauden bideak 7 metro inguruko zabalera dute galtzadari dagokionean eta pabilioien parean geratuko dira aparkalekuak, baterian. Honez gain, 2 metro zabaleradun espaloiak ere aurreikusi dira. Oinezkoen ibilbideak galtzadaren parean joango dira, malda gehien dagoen eramuetan izan ezik. Gainera, mendebaldeko aldean oinezkoen bide bat aurreikusten da proiektuak mozten dituen hainbat landa bide jasotzeko.

Bide horretan ere, biribilgunea zeharkatzen duen bidegorria garatu da, eta industrialdean jarraipena izango du, pabilioietara sarbidea eskainiz.

Zoladura asfaltozkoa izango da, pabilioiko espaloiak hormigoizkoak eta industriagunea inguratuko duen espaloia baldosekin egina. Bidegorria, berriz, asfaltozkoa izango da. Ura, gasa, energia elektrikoa, telekomunikazio eta ur zikinen eta euri uren saneamendu sareak ezarriko dira. Argiteria publikoa LED sistemakoa izango da. Oinezkoen ibilbideetan eta beheko bidean zutabe gaineko argiteria ezarriko da; goiko bidean, berriz, pabilioien fatxadetan ezartzea dago aurreikusia. Eremu libreetan belardiak sortuko dira eta baita biribilgune berria hartuko duen eremuan ere. Bertako espezieen zuhaitzak landatuko dira.

> *Bi maila ezberdinetan egongo diren bi zerrendetan eraikiko da, galtzada, espaloi eta bidegorriekin. LED luminariak ezarriko dira, mota orotako hornitze eta saneamendu sareak eta eremu berdeak.*

> **Kepa Zubiarrain, Lazkaoko alkatea:**
>
> *"Gure lehentasuna da Lazkaoko garapen ekonomikoa sustatzea, enpresa berriak erakarri eta lanpostu kualifikatu berrien sorrera bultzatzea".*

Industriagunera sarbidea iparraldetik burutuko da, 5 adar lotuz: GI-2120 errepidera sartu-irteerak, Zubierreka industriaguneko zubi berria, erdigunera sarbidea eta Kanpandegiko sarbidea.

# Los trabajos de urbanización de la industrialdea Kanpandegi comenzarán a principios de 2020





*Se prevé que las obras tengan una duración aproximada de 14 meses. El presupuesto asciende a 3.588.626,87 euros, IVA incluido.*

*Se edificará en dos franjas a dos niveles, con viales, aceras y bidegorris, además de luminarias LED, todo tipo de redes de saneamiento y abastecimiento, y zonas verdes.*

**Kepa Zubiarrain, Alcalde de Lazkao:**

*"Es nuestra prioridad fomentar la actividad económica de Lazkao, atraer nuevas empresas y crear nuevos y cualificados puestos de trabajo".*

Los trabajos de urbanización de la zona industrial de Kanpandegi arrancarán a principios del 2020, con el fin de posibilitar la construcción de los edificios industriales. El presupuesto asciende a 3.588.626,87 euros, IVA incluido, y se prevé que los trabajos duren 14 meses.

Actualmente, se encuentran ejecutados tanto el puente que une la zona de Zubierreka como la rotonda que da acceso rodado al futuro Industrialdea y organiza el tráfico de la carretera que une Lazkao, Beasain y Ataun, además de dar continuidad al bidegorri del municipio de Lazkao. En Kanpandegi el proyecto se ha desarrollado adaptándose a la pendiente y evitando grandes movimientos de tierra. Por ello se ha centrado la edificación en dos franjas con dos niveles y accesos a dos alturas diferentes en parte de los pabellones. Se compensa la excavación en el nivel inferior con el relleno necesario para que la urbanización superior alcance su nivel. Así, se separa la edificación industrial de los dos edificios de vivienda, Zubigoenaberri y Belenetxe, que se consolidan contiguos a la carretera.

Los viales proyectados tienen un ancho de siete metros de calzada con aparcamientos en batería frente a los pabellones. Para el servicio de éstos se dispone de una acera de dos metros de anchura. Los recorridos peatonales son paralelos a los viales salvo en las zonas de pendiente más pronunciada. Además, se plantea un camino por el borde oeste para recoger los distintos caminos rurales que la ordenación corta.

Igualmente se ha ejecutado el bidegorri que atraviesa la rotonda, y que tendrá continuidad en la industrialdea, posibilitando el acceso hasta los pabellones. Se prevé también un recorrido ciclista-peatonal, que partiendo desde el número 58 de la calle Hirigoien, conecta a una cota inferior y bajo las rotondas, la zona residencial del casco de Lazkao, con las zonas industriales a uno y otro lado del río Agauntza.

El pavimento será de asfalto, las aceras de los pabellones serán de hormigón y la acera perimetral se pavimentará con baldosa. El bidegorri se ejecutará con asfalto. Se instalarán redes de distribución de agua, de gas, de energía eléctrica, telecomunicaciones, y redes de saneamiento de aguas fecales y pluviales.

El alumbrado público será de tecnología LED. En las zonas peatonales y en el vial inferior se instalarán puntos de luz sobre columna y en el vial superior en las fachadas de los pabellones. Se prevé el extendido de tierra y césped en los espacios libres del vial principal y del área ocupada por la nueva rotonda. Se plantarán árboles de especies autóctonas.

El acceso se hace desde la nueva rotonda ejecutada en el extremo norte, que servirá para conectar cinco ramales: entrada y salida de la carretera GI-2120, nuevo puente de acceso al polígono Zubierreka, acceso al casco urbano y acceso a Kanpandegi. El acceso a Kanpandegi permite entrar en el anillo interno en ambos sentidos.




# EKIN DIO 'PAUSOKA' EKIMENAK LAUGARREN IKASTURTEARI

# YA HA COMENZADO LA INICIATIVA 'PAUSOKA' SU CUARTA TEMPORADA

Lagun artean paseora irtetea da egitasmoaren helburua, eta Lazkaoko Udalak, Orobionek, San Benito Ikastolak, Azki emakumeen elkarteak, Txindoki gerontologikoak eta Osakidetzaren herriko anbulatoriok bultzatuta egiten da.

Lagunartera paseora irtetzeak dituen abantailak ugari dira. Bihotza sendotzen laguntzen du, tentsio mailak egokitzen, edo kolesterol eta azukre mailak jaisten, besteak beste. Horrez gain, lagun berriak egiteko aukera ere ematen du.

Aurtengoa Pausoka egitasmoa egiten den laugarren ikasturtea izango da. Parte hartzaileez gain, boluntarioei eta ikastolako ikasleei esker, aurten ere Txindoki egoitzako erabiltzaileek ere parte hartu ahalko dute ibilaldi hauetako batzuetan.

Gogoratu, Pausoka egitasmoa asteartero errepikatuko dela, 10:30ean Lazkaoko plazan hasita. Taldeka banatuta ibilbide ezberdinak egiteko aukera egongo da astero. Ibilaldi bakoitzaren amaieran salda hartzeko elkartzen dira.

Pausoka egitasmoa asteartero errepikatuko da, 10:30ean Lazkaoko plazan hasita. Taldeka banatuta ibilbide ezberdinak egiteko aukera egongo da astero.

Se celebra todos los martes, a partir de las 10:30, comenzando desde la plaza. Divididos en grupos, se podrán realizar diferentes paseos todas las semanas.

El objetivo de Pausoka es animar a la ciudadanía a salir a pasear en un ambiente amigable, y está impulsado por el Ayuntamiento de Lazkao, Orobione, San Benito Ikastola, la asociación de mujeres Azki, el gerontológico Txindoki y el ambulatorio municipal de Osakidetza.

Salir a pasear tiene ventajas positivas sobre la salud: ayuda a fortalecer el corazón, mejorar los niveles de tensión, o a reducir los niveles de colesterol y azúcar, entre otras cosas. Además, Pausoka también ayuda a mejorar las relaciones sociales.

Este año será el cuarto año consecutivo que se organiza el proyecto Pausoka, y además de los usuarios, y gracias a los voluntarios y al alumnado de San Benito ikastola, los usuarios del gerontológico Txindoki podrán participar en la iniciativa un año más.

Recordad que Pausoka se celebra todos los martes, a partir de las 10:30, comenzando desde la plaza. Divididos en grupos, se podrán realizar diferentes paseos todas las semanas. Al finalizar cada recorrido, los participantes se reunirán para tomar caldo.




## *ELKARRIZKETA*

### Kontxi eta Raquel

# "Por un día a las semana que vas no es que hagamos mucho deporte, pero nos reunimos con conocidos y amigos, socializamos, y ese es un valor incalculable"

**Pasa den urriaren 1ean abiatu zuen Pausoka ekimenak laugarren ikasturtea, eta hasiera hasieratik bertan parte hartzen duten Kontxi eta Raquelekin batu gara, 83 eta 72 urtekoak hurrenez hurren, beren bizipenak ezagutzeko.**

**¿Por qué comenzasteis a participar en Pausoka?**

Esperientzia berri bat bizi nahi nuen eta horrexegatik nago Pausokaren lehen egunetik. Lehen bakarrik ibiltzen nintzen eta orain lagunekin ateratzen naiz. Lehen ezagunak ziren eta Pausoarekin harremana estutu dugu.



Kontxi eta Raquelek duela lau urte Pausoka ekimena sortu zenetik parte hartzen dute.

Incita a participar y a practicar algo de deporte; a moverte. Quedas y haces por ir. A mí me gusta andar y estas pendiente de ir, y si es en compañía mucho mejor.

**¿Cuál es el recorrido que realizáis?**

Ibilbide oso laua da, segurua eta oso egoki ibiltzen gara. Monitore batekin joan ohi gara eta berak laguntzen digu. Bakoitza bere erritmora joaten da eta taldean ere saiatzen gara elkar laguntzen eta egokitzen. Talde bat gara eta badago jendea ibiltzeko arazoak dituena ere, eta parte hartzen du eta nahi adina ibilbide egin. Batzuk bide erdian geratzen dira eserita besteon zain eta bueltan hartu eta guztiok batera itzultzen gara. -Hori da Kontxiren kasua-. Hankan arazo bat izan dut eta makuluekin nabil. Ibilbidearen zati bat egiten dut eta zati batean deskantsua hartu eta taldea bueltan datorrenean berriz batzen naiz ekimenera".

Damos la vuelta a Lazkao y después nos reunimos para tomar fuerzas con un caldito. Nos solemos reunir entre 30-40 personas todas las semanas, sobre todo jubiladas y jubilados, pero cuando solemos hacer alguna salida especial o algún taller participa más gente. El tiempo también repercute; con buen tiempo somos más, y con mal tiempo a la gente le da más pereza salir.

**¿Qué os aporta?**

Nos aporta satisfacción, alegría. El cuerpo está más activo, con más fuerza. Por un día que vas no es que hagamos mucho deporte, pero nos reunimos con conocidos... socializamos... y ese es un valor incalculable. Nos hacemos compañía mutuamente. Hemos conocido mucha gente de Lazkao que solo conocíamos de vista.

*"Zalantzarik Gabe, lazkaotar guztiei gonbidatzen diegu parte hartzera. Oso ongi etorriak izango dira.*















# KRONIKA IRUDITAN

- San Migelak
- Basherri eguna
- Bizifesta
- Kirol Astea
- Mugikortasun astea
- Josetxo Imaz lasterketa






LAZKAOKO
BASERRIETAN
EROSKETAK
EGITEKO
BONOA














Lazkao
HEGOAK HARRO
LAZKAOKO
UDALA





# LABURRAK






### 5 GUNETAKO ARGITERIA BERRITU DU UDALAK

Lazkaoko Udalak argi publikoak berritu ditu herriko bost gunetan, egungo luminarien ordez jasangarriagoak diren led teknologia erabiltzen dutenak jarriz. Mikelar kalean, Frontoi inguruan, Uhaitz 1ean, Plazan eta Aresoko aparkalekuan aldatu dira, besteak beste. Aurreikusitako aurrezpena %66 da kaleargi berriekin.

Honekin batera, Harizti handi aparkalekua argiztatzeko argi puntu berri bat ezarri da. Aparkalekuan 8 metroko altuerako zutabe batean LED argidun bi argi-proiektore jarri dira, bakoitza 200wkoa.

### EL AYUNTAMIENTO RENUEVA LUMINARIAS

El Consistorio lazkaotarra ha renovado luminarias en 5 puntos del municipio, cambiando las actuales por unas más eficientes de tecnología LED. En concreto se ha actuado en estas zonas: Mikelar, alrededores del frontón, Uhaitz 1, la Plaza y aparcamiento Areso. Se prevé un ahorro del 66% de energía.

También se ha instalado un nuevo punto de luz en el aparcamiento Harizti Handi. En un poste de 8 metros de altura se han colocado dos proyectores LED, cada una de 200 w.

### MUSIKA ESKOLAN GELA GEHIAGO

Lazkao Txiki Musika Eskolak Kultur Etxean ematen ditu musika hezkuntzako eskolak, eta matrikula urtetik urtera goruntz doazenez, Udalak bi gela eta biltegi bat egokitu ditu behar horiei erantzun ahal izateko.

### NUEVAS AULAS EN LA ESCUELA DE MÚSICA

La Escuela de Música Lazkao Txiki ofrece las clases de educación musical en la Casa de Cultura, y como las matrículas van en aumento año tras año, el Ayuntamiento ha habilitado tres nuevas aulas para dar respuesta a la demanda existente.

### MINDFULNESS IKASTAROA MEDITAZIOA LANTZEKO

20 pertsonek hartzen dute parte ostegunero eta azaroaren amaiera bitarte luzatuko da. Helburu du erabateko kontzientzia garatzen ikasteko giltzak ematea, oraina bere osotasunean bizi ahal izateko eta bizitzak eragiten duen estresa murrizteko. Metodo horren bidez, meditazioa landu eta buruko pentsamenduak kontrolatzen dira. Meditazioa burua trebatzeko entrenamendurik onena da, eta, Mindfulness teknikaren bidez, horrekin zerikusia duten ariketak egiten dira.

### CURSILLO MINDFULNESS EN LAZKAO PARA TRABAJAR LA MEDITACIÓN

Se prolongará hasta finales de noviembre y actualmente participan 20 personas. Tiene como objetivo dar las claves para desarrollar la conciencia completa, para poder vivir el presente en plenitud y para disminuir el estrés de la vida cotidiana. Con este método se trabaja la meditación y se controlan los pensamientos. La meditación es la mejor manera para trabajar la mente, y con la técnica Mindfulness se realizan actividades para ello.





### TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO 2020KO ZERGAREN SALBUESPEN ETA HOBARIAK ESKATZEKO EPEA ZABALIK

Abenduaren 31 bitarte dago zabalik Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko 2020ko Zergaren salbuespen eta hobariak eskatzeko epea. Salbuespenak ondorengoak dira: Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat, eta nekazal jarduerara bideraturiko traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makinaria dutenentzat. Hobespenak ondorengoak dira: ibilgailu elektrikoek %75eko hobaria; ibilgailu hibridoek %75eko hobaria; eta ibilgailu historiko eta 25 urte edo gehiago dutenek %100eko hobaria.

Salbuespen eta hobari hauek Udalean eskatu behar dira eta bakoitzari dagokion dokumentazioa aurkeztuz, eta eskaera egin eta hurrengo ekitaldian izango da aplikagarri. Hau da, 2020 urtean salbuespena edo hobaria eduki ahal izateko 2019ko abenduaren 31a baina lehen egin beharko litzateke eskaera.

### ABIERTO EL PLAZO PARA SOLICITAR EXENCIONES Y BONIFICACIONES DEL IMPUESTO SOBRE VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA DEL 2020

Hasta el 31 de diciembre estará abierto el plazo para solicitar exenciones y bonificaciones del impuesto sobre vehículos de tracción mecánica del 2020. Las exenciones son: para las personas con movilidad reducida, y para los vehículos dirigidos a actividades agrícolas como tractores, remolques, semirremolques y maquinaria.

Las bonificaciones son las siguientes: 75% para los vehículos eléctricos, 75% para vehículos híbridos, y 100% para vehículos históricos y de más de 25 años. Todas las bonificaciones y exenciones se deben solicitar en el Ayuntamiento y será aplicable en el próximo ejercicio. Es decir, para tener en el 2020 la exención o bonificación hay que solicitarla antes del 31 de diciembre de 2019.

### BIZIKLETAK APARKATZEKO AUKERA GEHIAGO

Lazkaok bizikletan ibiltzeko baldintza berdingabeak batzen ditu eta Udalak garraiobide garbi eta osasuntsu honen aldeko apustua mantentzen du. Ez hori bakarrik, joan-etorria ere arintzen du. Hori horrela, bizikleta aparkaleku berriak ezarri dira hainbat puntutan, beren aparkalekua erraztu eta erabilera sustatzeko lazkaotarren artean.

### MÁS APARCABICIS

Lazkao es municipio que reúne buenas condiciones para el uso de la bicicleta y desde el Ayuntamiento se quiere seguir apostando por este medio de transporte, saludable y respetuoso con el medio ambiente y que contribuye al mejoramiento del tránsito. Así, se ha procedido a colocar nuevos bicicleteros o aparcabicis en diferentes puntos del municipio, para intentar facilitar su estacionamiento y seguir fomentando la cultura de la bicicleta entre los lazkaotarras.

### EDUKIONTZI BERRIAK

15 edukiontzi berri ezarri dira Lazkaoko puntu ezberdinetan. Helburu da denon artean Lazkao garbi mantentzea, herri atsegina eginez gure herria. Guztion lana da. Ez da gehiago garbitzea kontua, baizik eta garbi dagoena mantendu eta gutxiago zikintzea.

### NUEVOS CONTENEDORES

Se han colocado 15 nuevas papeleras en diversos puntos de nuestro municipio. La finalidad es que entre todos mantengamos limpias nuestras calles, dando así una mejor imagen y haciendo más agradable nuestro entorno. Es tarea de todos y no consiste sólo en limpiar mucho, sino también en tratar de ensuciar menos y mantenerlo limpio.

# GAZTELEKUA



*12 eta 17 urte arteko gaztetxoei dago zuzendua eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara irekita egongo da asteburuetan Kultur Etxean kokatuta dagoen gunea.*

*El servicio está dirigido a jóvenes entre 12 y 17 años y estará abierto los fines de semana de 16:00 a 20:00 de la tarde.*

## Lazkaoko Gaztelekuak urriaren 19an hasi zuen ikasturte berria

Lazkaoko Udalak Gaztelekua zabaldu zuen berriz ere urriaren 19an. Apirilaren amaierara bitarte egongo da irekita asteburuetan, eguberriak eta Aste Santua barne. Helburu du gazteentzako garrantzitsu den espazio propioa eskaini eta lagunekin elkartzeko gunea izatea. 12 eta 17 urte arteko gaztetxoei dago zuzendua eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara irekita egongo da Kultur Etxean kokatuta dagoen gunea.

Bertan bi hezitzaile egoten dira, aisialdia gune izatetik haratago baitoa zerbitzua, eta bizikidetza, errespetua, autonomia, parte-hartzea, sormena edo integrazioa bezalako balioak lantzen dituzte bertan garatzen dituzten ekintza edota noizean behin egiten dituzten irteerekin.

Ekintza horietan parte hartu nahi duten gazteek Gaztelekura gerturatu behar dute zuzenean, zehaztutako ordutegian.

## Lazkaoko Gaztelekuak urriaren 19an hasi zuen ikasturte berria

El Ayuntamiento de Lazkao abrió el Gazteleku el 19 de octubre. El nuevo curso se prolongará hasta finales de abril y estará abierto los fines de semana, Navidades y Semana Santa incluidos. Tiene como objetivo ofrecer a la juventud un espacio propio y un punto de encuentro entre amigos y amigas. El servicio ubicado en la Casa de Cultura está dirigido a jóvenes entre 12 y 17 años y estará abierto de 16:00 a 20:00 de la tarde.

El Gazteleku está apoyado por dos educadoras, ya que el servicio va más allá de ser únicamente un espacio de ocio, y se fomentan valores como la convivencia, el respeto, la autonomía, la participación, la creatividad o la integración mediante las actividades y salidas que realizan.

Todos y todas que quieran participar en dichas actividades, sólo tienen que acudir al Gazteleku cualquiera de los días mencionados, dentro del horario establecido.








# Euskarazko eskoletara joateagatik diru laguntzak emango ditu udalak

Azaroaren 15a arteko epea egongo da laguntzak eskatzeko




Euskarazko eskoletara joateagatik diru laguntzak emango ditu aurten ere Lazkaoko Udalak. Azaroaren 15 arteko epea egongo da laguntzak eskatzeko. Honako baldintzak bete beharko dira laguntzak jasotzeko:

- Ikastaroa hasterako Lazkaon gutxienez urte bete edo gehiagoz erroldatuta egotea eta behin betiko izaera izatea.
- Eskoletara gutxienez %80ko asistentzia izatea.
- Ikastaroa euskaltegi homologatu batean egitea.
- Beste inolako erakundeetatik diru laguntzarik ez jasotzea.

Langabeek matrikula kostuaren %100a jasok dute, diru laguntzen deialdiko partidan esleitutakoa iritsiz gero. Jubilatuek matrikularen kostuaren %100a jasoko dute baldin eta 1.000 euro baino pentsio baxuagoa jasotzen badute.

## El Ayuntamiento concede ayudas por asistir a clases de euskara

Se podrán solicitar las ayudas hasta el 15 de noviembre

El Ayuntamiento de Lazkao ofrecerá un año más ayudas económicas por asistir a clases de euskara. El plazo para solicitar dichas ayudas finaliza el 15 de noviembre. Será necesario cumplir los siguientes requisitos para obtener las ayudas:

- Estar empadronado en Lazkao con carácter definitivo al menos un año antes de comenzar el curso.
- Tener una asistencia a clases del 80% como mínimo.
- Realizar el curso en un euskaltegi homologado.
- No recibir ayudas de otras instituciones.

Los parados y las paradas recibirán el 100% de la matrícula, siempre y cuando haya suficiente dinero en la partida destinada. Los jubilados y las jubiladas que tengan una pensión inferior a 1.000 euros también recibirán el 100% de la matrícula.

### Gidabaimena euskaraz

Halaber, gidabaimena euskaraz ateratzeagatik ere emango ditu laguntzak udalak. Laguntzen eskaerak aurkezteko epea irekita dago abenduaren 31ra arte. Lazkaotarrei bakarrik zuzendutako laguntza da.

### Carnet en euskera

Por otra parte, el Ayuntamiento de Lazkao también concede ayudas a todos aquellos lazkaotarras que obtengan el carnet de conducir en euskera. El plazo para realizar la solicitud de las ayudas finaliza el 31 de diciembre.




# LAZKAOKO 'IKASGELA' ASTELEHENETIK IGANDERA DAGO ZABALIK

# EL AULA DE ESTUDIO 'IKASGELA' DE LAZKAO ESTÁ DISPONIBLE DE LUNES A DOMINGO

Lazkaoko Udalak 2019ko apirilean zabaldu zuen 'Ikasgela', ikasteko eremu berri bat sortuz. Erabiltzaileen eskakizunei erantzunaz, 2019-20 ikasturtean asteburuetan ere erabiltzeko aukera egonen da; hortaz, astelehenetik igandera egongo da zabalik.

Helburu da ikasteko gune bat eskaintzea lazkaotarrei, inguru isilean eta beharrezko azpiegiturekin: internet konexioa, argindarra, mahaiak...

Astelehenetik igandera goizeko 8:00etatik 21:00etara egongo da zabalik. Asteburuetan ikasgela erabili ahal izateko Udalean aurrez eskaera egin behar da eta txartel identifikatzaile bat esleituko zaio eskatzaileari.

Txartel honen bidez kudeatuko da sarbidea Kultur Etxea itxita dagoen egunetan. Edozein zalantza argitzeko Lazkaoko Udalera bertaratu daiteke, 943 08 80 80 telefono zenbakira deitu edotа udala@lazkao.eus era idatzi.

*Egunero goizeko 8:00etatik 21:00etara dago zabalik.*

*Txartel identifikatzaile bidez kudeatuko da sarbidea Kultur Etxea itxita dagoen egunetan. Asteburuetan ikasgela erabili ahal izateko Udalean aurrez eskaera egin behar da.*

*Está abierto de 8:00 a 21:00 todos los días.*

*Los días en que la Casa de Cultura esté cerrada la entrada se realizará mediante un sistema de control con tarjeta. Para utilizar el aula de estudio los fines de semana y festivos hay que realizar la solicitud en el Consistorio.*

El Ayuntamiento de Lazkao inauguró el aula de estudio 'Ikasgela' en abril del 2019, con la intención de ofrecer un espacio adecuado para el estudio a las y los lazkaotarras. Ahora, y teniendo en cuenta las solicitudes de los y las usuarias, la 'Ikasgela' estará disponible también los fines de semana y festivos, es decir, todos los días del curso.

El principal objetivo es ofertar un espacio adecuado para estudiar, en un entorno silencioso y con las necesarias infraestructuras como, por ejemplo, conexión a internet, mesas, electricidad...

Permanecerá abierto de lunes a domingo de 8:00 a 21:00. Para utilizar el aula de estudio los fines de semana y festivos hay que realizar la solicitud en el Consistorio y se facilitará una tarjeta de identificación a las y los usuarios.

Los días que la Casa de Cultura esté cerrada la entrada se realizará mediante este sistema de control con tarjeta.

Para solventar cualquier duda se le atenderá en el Ayuntamiento, llamando al 943 08 80 80 o escribiendo a udala@lazkao.eus.

# Udazkeneko Musika Zikloak aurrera darrai

Udazkeneko Musika Zikloak aurrera darrai. Lehen bi kontzertuen ondotik, urriaren 31n Bel Canto Choir Vilnius abesbatza eta azaroak 9an Easo gazte abesbatza, beste bik emango diote jarraipena programari:

**Azaroak 17, igandea:**

Lazkaoko Kantaka abesbatza 'Misa de la coronación de Mozart" San Migel parroquia.

**Azaroak 24, igandea:**

Hodeiertz abesbatza eta bere 'Kristalezko bihotza' ipuin musikatua San Migel parrokian.

Kontzertuetarako sarrerak Udaletxean eskura daitezke eta saio bakoitzaren egunean baita Arerian ere. Areriako kontzertuak 5 euroko prezioa du eta San Migel parrokiakoa doanekoa da.

El Ciclo de Música de otoño continúa su andadura. Tras los dos primeros conciertos, el 31 de octubre el coro Bel Canto Choir Vilnius y el 9 de noviembre el coro juvenil Easo, tendremos dos citas más:

**17 de noviembre, domingo:**

el coro lazkaotarra Kantaka canta 'Misa de la coronación de Mozart" en la parroquia San Migel.

**24 de noviembre, domingo:**

el coro Hodeiertz y su cuento musical 'Kristalezko bihotza' en la parroquia San Migel.

Las entradas se pueden obtener en el Ayuntamiento y el día del concierto también en Areria. El concierto de Areria tienen un precio individual de 5 euros, el de la parroquia es gratuito.







Lazkaoko berriak jaso nahi dituzu?
Harpidetu buletinera
www.lazkao.eus helbidean

¿Quieres recibir noticias sobre Lazkao?
Suscríbete en www.lazkao.eus

LAZKAOKO
UDALA